# 29

Asteazkena | 18:00 | Udal Liburutegian

## Aho bete amets...
## saio ludiko-praktikoa, Yolanda Arrietarekin

Aho bete amets edo zergatik (eta nola) partekatu aho-jolasak, ipuinak, liburuak...0-5 urte bitarteko haurrarekin.
Guraso, hezitzaile, irakasle eta bitartekariei zuzendutako saioa



# DEIALDIAK

### 2017AN KULTUR EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO DEIALDIA

Usurbilgo Udalak kultur egitasmoak burutzeko deialdia ireki du. Eskaerak egiteko epea martxoaren 13an amaituko da. Informazio gehiagorako: www.usurbil.eus edo kultura@usurbil.eus 943 37 19 99

### ASTE SANTUKO TXOKOAK AGINANGAN

**Egunak:** Apirilak 10,11,12, 18,19, 20 eta 21.
**Ordua:** Sarrera 9.00-10:00 Irteera: 13:00
**Tokia:** Aginagako ludotekan
**Prezioa:** ume kopuruaren arabera zehaztuko da.
**Izen ematea:** aginaga@eskolatxikiak.org Martxoak 17a baino lehen,
**Antolatzailea:** Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkartea



## UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00
Astegunetan,
10:00-13:00 eta 16:00-19:30
Itxita ●
Goizez ●

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | ● | ● |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | ● | ● |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | ● | ● |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | ● | ● |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · www.liburutegiak.euskadi.eus/katalogobateratua

## KZ-GUNEKO IKASTAROAK

### IKASTARO ETA MINTEGIAK

**LibreOffice ofimatika tresnak (10 ordu)**
15-28 09:00-11:00

**Gmail, Posta-elektronikoa baino gehiago (4 ordu)**
09-10 09:00-11:00

### OINARRIZKO INTERNET

**Zure lehen urratsak informatika munduan (10 ordu)**
01-14 09:00-11:00

**Programa informatiko onenak jeitsi (2 ordu)**
29 09:00-11:00

**Informatika lainoan, bildu eta partekatu zure informazioa (2 ordu)**
30 09:00-11:00

### SMARTPHONEAK ETA TABLETAK

**Bizitza hobetzeko IK-teak (2 ordu)**
31 09:00-11:00

Martxoan Kzgunea: Goizez 09:00-13:00
Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus



*Zuen deialdiak zabaltzeko, bidali hilaren 15a baino lehen kultura@usurbil.eus helbidera.*


Usurbilgo Udala
Soziokultura Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus


Usurbil Kultura
Herritarron tresna
Usurbilgo Kultura zabaltzeko
kultura-usurbil.eus

# KULTUR AGENDA 2017ko martxoa

| | | |
|---|---|---|
| Igandea<br>10:00 Donostiako Boulevardean | 28. LILATOIA | 5 |
| Igandea<br>12:00 Udaletxe aurreko plazan | HERRITZARTU EKITALDIA | 5 |
| Igandea<br>17:00 Sutegiko auditoriumean | HAURRENTZAKO ZINEA:<br>MAITAGARRI AMANDREA | 5 |
| Ostirala<br>21:00 Artzabalen | BERTSO AFARIA: ONINTZA ENBEITA,<br>UXUE ALBERDI ETA ANE LABAKA | 10 |
| Larunbata<br>07:00 Oiardo kiroldegitik | MENDI IRTEERA:<br>BIDASOAKO KONTRABANDISTAK 3 | 12 |
| Igandea<br>18:00 Sutegiko auditoriumean | "EN TRÁNSITO" DOKUMENTALA | 12 |
| Ostirala<br>17:30 Bihurri Ludotekan | CLOWN SAIOA: GORPUTZ HIGIENEA | 17 |
| Ostirala<br>19:00 Sutegiko auditoriumean | "NACIDO EN SIRIA" DOKUMENTALA | 17 |
| Larunbata<br>10:00 Potxoenean | AUTODEFENTSA FEMINISTA IKASTAROA | 18 |
| Igandea<br>11:00 Txapeldun aurreko plazan | BIZI KALEA: IV. AZOKA IBILTARIA | 19 |
| Astelehena<br>18:00-19:00 Salbatore Elizan | XIII. SOINURBIL: ORGANO ERAKUSTALDIA | 20 |
| Asteartea<br>18:30 Sutegiko auditoriumean | XIII. SOINURBIL:<br>KONTU KANTARI ANTZERKI KONTZERTUA | 21 |
| Asteazkena<br>19:00 Salbatore Elizan | XIII. SOINURBIL:<br>ORGANO ETA TXISTU KONTZERTUA | 22 |
| Osteguna<br>19:00 Sutegiko auditoriumean | XIII.SOINURBIL: BEASAINGO MUSIKA<br>ESKOLAREKIN TRUKAKETA | 23 |
| Ostirala<br>20:00 Kalean | XIII.SOINURBIL: ROCKALEAN IKUSKIZUNA | 24 |
| Larunbata<br>12:00 Mikel Laboa Plazan | XIII.SOINURBIL:<br>ZUMARTEKO POR-ROCK TALDEAK | 25 |
| Larunbata<br>19:00 Mikel Laboa plazatik | KANTU JIRA | 25 |
| Igandea<br>12:00 Kalean / 13:00 Frontoian | XIII.SOINURBIL:<br>AIZKOITIKO MUSIKA BANDA | 26 |
| Igandea<br>19:00 Sutegiko auditoriumean | LABURBIRA:<br>EUSKARAZKO FILM LABURREN EMANALDIA | 26 |
| Asteazkena<br>18:00 Udal liburutegian | AHO BETE AMETS...SAIO LUDIKO-<br>PRAKTIKOA, YOLANDA ARRIETAREKIN | 29 |

## DEIALDIAK

| | |
|---|---|
| 2017AN KULTUR EGITASMOAK BURUTZEKO<br>DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO DEIALDIA | Epea: Martxoak 13 |
| AGINAGAN ASTE SANTUKO TXOKOAK | Epea: Martxoak 17 |

# USURBILGO KULTUR AGENDA

## 2017ko martxoa



## emakumeON eguna

MARTXOAK 10 BERTSO-AFARIA



# EKINTZAK

## 5 | Igandea | 12:00 | Udaletxe aurreko plazan

herritzartu usurbil maiatzak 7 herri galdeketa

### **Herritzartu** Ekitaldia

Maiatzaren 7an erabakitze eskubidearen alde herri-galdeketa egiteari babesa emateko.
**Antolatzailea:** Gure Esku Dago plataformako Usurbilgo Herritzartu elkartea.

## 5 | Igandea | 17:00 | Sutegiko auditoriumean



### **Haurrentzako zinea:** Maitagarri Amandrea

**Sarrerak:** egunean bertan 3 € **Nori zuzendua:** 6-12 urte **Iraupena:** 85 min.
**Antolatzailea:** Usurbilgo Udala **Laguntzailea:** Ziortza Gazte Elkartea
Anabelek (Mara Wilson) maitagarri amandre bat eduki nahi zuen, baina nekez pentsatuko zuen bere guraria bete eta amandre hark (Martin Short) Murray izango zuela izena!

## emakumeON eguna

**Antolatzaileak:** Matrakak Usurbilgo Talde Feminista eta Udal Parekidetasun Saila.

### 5 | Igandea | 10:00 | Donostiako Boulevardean



**28. LILATOIA, EMAKUMEZKOEN LASTERKETA**
5 km.ko ibilbidea izango da.

### 10 | Ostirala | 21:00 | Artzabalen

**"TESTURAK" BERTSO AFARIA**
**Bertsolariak:** Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Ane Labaka.
**Gai jartzailea:** Maite Berriozabal. **Prezioa:** 16 € Bordatxon eta Aitzagan salgai.

### 12 | Igandea | 18:00 | Sutegiko auditoriumnean

**"EN TRÁNSITO" DOKUMENTALA**
**Hizkuntza:** gaztelania. **Sarrera:** doan.
Bidez Bide Elkarteak feminismotik lan egiten du. Hori dela eta, Oscar Tejedor zinemagilearekin batera egin dute "En Tránsito" dokumentala. Lan honek zaintza lanak kokatzen ditu erdigunean, Latino Amerikatik EH-ra migratutako hainbat emakumek euren seme-alabekin ezartzen dituzten harremanak nolakoak diren eta zaintzaren gestioa nola egiten duten erakusten duelarik. Proiekzio ostean, Soraya Ronquillorekin mintzaldia egiteko aukera izango dugu.

### 18 | Larunbata | 10:00 | Potxoenean



**AUTODEFENTSA FEMINISTA IKASTAROA**
**Formatzailea:** Maitena Monroy. **Ordutegia:** 10:00-14:00 eta 15:30-19:30
**Izen emateko:** parekidetasun sailan: parekidetasuna@usurbil.eus edo 943 377 110

## 12 | Igandea | 07:30 | Oiardo kiroldegitik

### Mendi irteera: **Bidasoako kontrabandistak 3: Arantza-Beintza**

**Garraioa:** Autobusez
**Ibilbidea:** 22 km
**Izen-ematea:** 25 €. Martxoaren 8a baino lehen.
**Informazio gehiago:** www.andatza.com

## 17 | Ostirala | 17:30 | Bihurri ludotekan

### Clown saioa: **Gorputz higienea**



**Antolatzailea:** Bihurri Ludoteka
Clown saioan parte hartuko duten antzezleen aurkezpena egin ondoren, sorosleek argi eta garbi azalduko dituzte jarraitu beharreko pausoak: eskuak garbitzea, dutxa, hortzak garbitzea.

## 17 | Ostirala | 19:00 | Sutegiko auditoriumean

### **"Nacido en Siria"** dokumentala




**Hizkuntza:** gaztelania **Iraupena:** 85 min.
**Sariak:** 2016an Goya saria jaso zuen dokumental honek.
**Antolatzailea:** Mundu Berri elkartea
**Sarrera:** Egunean bertan 2 €
(Sarreratik ateratako dirua errefuxiatuentzat izango da.)
Siriako gerra hasi zenetik, lau milioi inguru siriarrek herria utzi egin behar izan dute, biolentziatik ihesi. Erdia baino gehiago haurrak dira.
Juanito Orella eta Jose Luis Aranburu herritarrak Serbian izan berriak dira. Han ikusitakoaren berri emango dute. Bestalde, Mundu Berri Elkarteko kideak ere bertan izango dira, emanaldiaren ondoren, hitzaldi solasaldia egiteko.

## 19 | Larunbata | 11:00-15:00 | Txapeldun aurreko plazan

### Bizi Kalea: **IV. Azoka Ibiltaria**




**Antolatzaileak:** Hurbilago eta Hurbilagoko tabernariak, Usurbilgo Udalaren laguntzarekin.
Gastronomia, musika, mokaduak, poteak, azokak, zozketak.
**Herritzarturen tonbola**

## XIII. Soinurbil musika astea

**Antolatzaileak:** Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.
**Laguntzailea:** Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxabank

### 20 | Astelehena | 18:00 eta 19:00 | Salbatore Elizan

**ORGANO ERAKUSTALDIA**



Usurbilgo Organoa berezia da. 1907an Parisen eraiki zen, Cavaillé-Coll lantegietan. Joan Luis Atxegaren eskutik Usurbilgo organoa gertutik ikusteko aukera paregabea izango dugu.

### 21 | Asteartea | 18:30 | Sutegiko auditoriumean

**"KONTU KANTARI" JOLASEAN IKASI, MUSIKAZ HAZI**



**Iraupena:** 50 min. **Prezioa:** 2 € egunean bertan.
Euskarazko hamar haur-kantuen kontzertua txotxongiloekin. *Kontu kantarik* gogoan ditugun kantuak bildu, eta beste erritmo batzuetara aldatzen ditu: reggae, rap edo bluesera. Aukera ona musikaz eta txotxongiloen mundu magikoaz familiarekin gozatzeko.

### 22 | Asteazkena | 19:00 | Salbatore Elizan

**ORGANO ETA TXISTU KONTZERTUA**



**Organo-jotzailea:** Juan Luis Atxega Pagola.
**Txistulari bakarlariak:** Estanis Karrera Sarasola eta Aitor Pagola Arizmendi.
Lezoko eta Usurbilgo txistulari taldea.

### 23 | Osteguna | 19:00 | Sutegiko auditoriumean

**BEASAINGO MUSIKA ESKOLAREKIN TRUKAKETA**



**Sarrera:** Doan
Beasaingo Loinatz Musika Eskolakoak Usurbilera etorriko dira urtean zehar egindako lana erakustera.

### 24 | Ostirala | 20:00 | Kalean

**ROCKALEAN IKUSKIZUNA**



Herriko kaleetako edozein lekutan jo dezakeen Rock talde bat imajinatzen al duzu? Ba horixe da RocKalean! Rock eta Pop estiloko kantu ezagunek osatzen dute gure kantu-zerrenda.

### 25 | Larunbata | 12:00 | Mikel Laboa Plazan

**ZUMARTEKO POP-ROCK TALDEAK**



Euria eginez gero Askatasuna plazan
Zumarte Musika Eskolako taldeek eskainiko dute kontzertu hau. Adin desberdinetako ikasleak izango dira bertan parte hartuko dutenak eta dagoeneko emanaldi ugari eskaini dituztenak dira. Talde hauek izango dira: Zappa taldea, Nesquik Taldea, Ixaksonak Taldea, Ganbarakada Taldea eta The Hastelen´s Taldeak.

### 26 | Igandea

**AZKOITIKO MUSIKA BANDA**



**12:00** Kalejiran **13:00** Frontoian

### Apirilak 6 | Osteguna | 18:30 | Beasaingo Igartza Jauregian

**ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKOEN KONTZERTUA BEASAINEN**
Beasaingo Musika Eskolak gonbidatuta, Zumarte Musika Eskolako ikasleak Beasainera joango dira musika-elkartrukea egiteko asmoz.

## 25 | Larunbata | 19:00 | Mikel Laboa plazatik irteera

### **Kantu-jira** kalez kale



**Antolatzailea:** Usurbilgo Kantu Taldea.
**Nori zuzendua:** Herritar orok parte har dezake.
Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera.

## 26 | Igandea | 19:00 | Sutegiko auditorioan

### **Laburbira,** Euskarazko Film laburren emanaldia

**Antolatzailea:** Noaua! Kultur Elkartea **Sarrera:** doan
Aurten ere euskarazko zortzi ekoizpen izango ditugu herriz herri erakusteko, gozatzeko. Elkarren artean arras ezberdinak diren zortzi lan, denak zuzenean bizitzekoak!
Hona hemen, XIV.Laburbira osatzen duten 8 lanak:



- AZKEN SASKIA 2016 (9'40"). Oier Fuentes.
- BETI BEZPERO KOPLAK. 2016 (5'22″). Ageda kopla taldea
- IHESA. 2016 (15'19"). Alejandro Díaz Castaño.
- ELEMAKARRAK. 2016 (4'50″). Ibon Iza.
- JALGI. 2015 (11'). Eki Pagoaga.
- 280°. 2016 (2'47″). UDA films.
- EUSPOT. 2016 (10'). Lehiaketako spot onenak.
- HILETA. 2016 (19'50″). Kepa Sojo.